



AMEZKETAKO UDALA

AMEZKETAKO ZABORBILKETA ZERBITZUAREN BILGUNEAK ETA ANTOLAKUNTZA

Hauek dira gaur egun egokituta dauden zaborbilketa guneak:

- 1) **Ugarten**: papera, ontzi arinak, beira, sukaldean erabilitako olioak, pixoihalak, konpresak eta errefusa.
- 2) **Ola auzoan**: papera, ontzi arinak, pixoihalak eta konpresak.
- 3) **Zubillagan**: papera, ontzi arinak, pixoihalak eta konpresak.
- 4) **Bartolome Deunaren kalean**: papera, ontzi arinak, organikoa, pixoihalak eta konpresak.
- 5) **Beartzana ondoko gunean**: papera, ontzi arinak, beira, arropa, pixoihalak, konpresak eta errefusa.
- 6) **Zubeldia ondoko gunean**: papera, ontzi arinak, beira, sukaldean erabilitako olioak, errefusa, pixoihalak eta konpresak.
- 7) **Eskolan**: papera, ontzi arinak, organikoa, pixoihalak eta konpresak.
- 8) **Errekalde ondoko gunean**: papera, ontzi arinak, pixoihalak eta konpresak.
- 9) **Ergonen**: papera, ontzi arinak, beira, organikoa, errefusa eta pixoihalak eta konpresak.
- 10) **San Martinen**: papera, ontzi arinak, beira, pixoihalak eta konpresak.

Organikoaren ontzia udaletxean ere badago eta beharren arabera jartzen joango gara. Beraz, **organikoa** sailkatu edo bereiztu egin behar da **derrigorrez** eta dagokion ontzian bota.

Errefusa astean behin kontenedore grisera bota daiteke. Hondakinen sailkapena ondo egiten bada astean behingoz botatzea nahikoa da.

Zaborbilketa berezia egingo da hilero bi alditan, **altzari eta traste zaharren bilketa**. Hilaren lehen eta hirugarren astelehenean traste zaharrak zaborbilketa gunera atera behar dira eta bilketa hurrengo egunean, asteartean egingo da. Komeni da aurrez 943.67.62.16 telefonora deitzea, ateratako zaborren eta lekuaren berri emateko.

Garbigunera eraman behar diren hainbat hondakin botatzeko aukera izango da udaletxe sarreran jarrita dagoen gris koloreko ontzani : bonbilak, fluoreszenteak, tonerrak, CDak, jostailuak eta kazerola, zartariak eta elektragailu txikiak (plantxak, batidorak, irratiak, erlojuak...).

Garbigunera zuzenean hondakinak eraman nahi dituenak bi aukera dauzka:

- 1) San Blas garbigunea Tolosan. Tel/ 943.67.62.16 eta 689.41.13.49
www.tolosaldea.org

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00tara.

Larunbatak: 9:00etatik 13:30etara.

Igandeak eta jaiegunak itxita.

Abuztua: astelehenetik larunbatera 9:00etatik 13:30etara.

- 2) Andoaingo garbigunea. Leizotz industriagunean. Tel/943.30.38.09
www.tolosaldea.org

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00tara.

Larunbatak: 9:00etatik 13:30etara.

Igandeak eta jaiegunak itxita.

Abuztua: astelehenetik larunbatera 9:00etatik 13:30etara.